

Noticia publicada en Diario Vasco, el miércoles día 3 de Marzo de 2021.

Euskarazko irakurzaletasunari buruz hitzaldia emango dute bihar Unai eta Maialen Oiartzunek

M.A.I.IRUN.Miércoles, 3 marzo 2021, 00:12

Aitzondo Irungo Euskara Taldea Elkarteak hitzaldia antolatu du biharko, Palmera Montero Gunean, 17.30ean, Maialen Oiartzun eta Unai Oiartzunekin.

«Irungo Udalak bi urtean behin eskaintzen duen Jose Antonio Loidi ikerketa beka irabazi zuten Maialen Oiartzun eta Unai Oiar-tzun irundarrek 2018an», gogoratu zuten Aitzondoek. 'Euskarazko irakurzaletasuna Irungo Udal Liburutegian' izenburupean ondutako lana aurtengo urtarrilean aurkeztu zuten.

Aitzondo euskara taldean, barne ausnarketa baten ondoren, lan horrek sozializazio handiagoa merezi zuela nabarmendu dute, «etorkizunean martxan jar daitezkeen egitasmoak denon artean partekatu eta kontrastatzeko».

Bere lana aurrera eramateko jasotako datuen berri emango dute Oiartzun anai-arrebek biharko hitzaldian eta «ondoren, proposamen batzuk luzatuko dituzte. Amaieran galderentzako eta eztabaidarako tarte irekiko dugu», zioten euskara elkartetik. «Saio hau bereziki emankorra izan daiteke hainbat arloentzat: Irungo Udaleko Euskara, Kultura eta Hezkuntza arloentzat (bai politikari bai teknikarientzat), CBA Liburutegiko langileentzat, Irungo hiru euskaltegientzat, maila guztietako eskolentzat eta literaturan interesa duen beste edonorentzat».

Joan ahal izateko izen-abizenekin mezu labur bat idatzi behar da eta helbide honetara bidali: irungoeuskarataldea@gmail.com